

# Platanoaren puzkerra puxikan

---

Puxika bat puztea erraza da: puxikaren zuloa ahoan ipini, eta... fffffu, putz egin. Baina puztuko al zenuke puxika bat sudurretik botatako airearekin? Eta platano batekin? Bai, ongi irakurri duzu: puztuko al zenuke puxika bat platano batekin?

## Behar dituzu

- Platano heldu bat.
- Puxika bat
- Sardexka bat
- Plater bat
- Ur-botila txiki bat

## Zer egin

1. Sardexkarekin, txikitu platanoa platerean.
2. Koilara txiki baten laguntzaz, gorde platano-orea ur-botilaren barruan.
3. Botilaren ahoan jarri puxika, marrazkian azaltzen den moduan.
4. Ipini botila eta puxika leiho ondoan, eguzkiak joko dien lekuan.

**Zer gertatzen da?** Une horretan ez da ezer gertatuko, noski, baina, behatu puxika hurrengo egunetan. Nahi baduzu, puxikaren diametroa erregela batez neurtzen joan. Eta orduan bai. Zer gertatzen da? Egia al da, lortu al duzu puxika platanoarekin puztea?



### Azalpena

Bakterioek platanoa usteltzen dute, eta, deskonposatzean, gas bat askatzen dute, arnasten dugunean guk  $\text{CO}_2$ -a askatzen dugun

moduan. Bakterioek askatzen duten gasa, ordea, metanoa da, guk puzkerretan askatzen duguna, puxikaren barruan duzun berbera!

Azaldu dizugu platano batez puxika nola puztu; orain, esango al diguzu zuk nola puztu dezakegun puxika bat sudurrarekin?